

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloek 2 ikasturtetan zehar garatzen dira. Ziklo osoaren iraupena 2.000 ikastordukoa da.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloa gainditzen duten ikasle guztiek, ikasketak egindako espezialitatean Oinarrizko Lanbide Heziketako Titulua lortzeaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Titulua ere eskuratuko dute.

Oinarrizko Lanbide Heziketa zikloetan sartzeko baldintzak:

1) Sartzeko lehentasuna izango dute aldi berean baldintza hauek betetzen dutenek:

- a) Hamabost urte beteak edukitzea edo indarreko urte naturalean betetzea.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila edo, salbuespen gisa, DBH-ko bigarren maila eginda izatea. Ikaslea azken egoera horretan baldin badago, horren berri eman beharko zaio Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari.
- c) Irakasleek familiei edo legezko tutoreei proposatzea interesdunak Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat has dezan.

2) Era berean, eskabidea egiteko aukera izango dute:

- 17 urtetik gorakoek, baldin eta Lanbide Heziketako titulaturik ez badaukate edo bigarren hezkuntzako ikasketak bukatu barik badaukate.

Ikasleek Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua lortutakoan, zuzenean joan daitezke Erdi Mailako zikloa egitera edo bestela laneko mundura sartzera.

Hona hemen **2022-2023 ikasturtean** eskainiko diren **Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak**:

- ◆ Sukaldaritza eta Jatetxe arloa
- ◆ Ibilgailuen Mantentze-lanak: Ibilgailuen Elektromekanika

Informazio osagarria:

Matrikulaziorako arduraduna: Maite Ibarluzea (Ikastegiko zuzendaria)
Orduetgia: 9:00 - 14:00
Helbidea: Atalde kalea, 8 - 48370 Bermeo
Telefona: 94 617 91 75
E-mail: lanbidehastapena@bermeo.eus